

HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2016/02/10

BILERA ZENBAKIA: 2

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: Amaia, Tere, Maddi, Emma, Aitor, Ainara, Maite, Joxeluis, Ekaitz.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA


LANDUTAKO GAI ORDENA

1. HURRENGO HILABETEKO KULTUR EKINTZAK:

- Pintxo lehiaketa. Otsailak 12. Dena lotuta dago.
- DVD emanaldia, otsailak 25.
- Hurrengo bilerarako kulturako aurrekontua aztertu eta gastu fijoak kenduta zenbat diru daukagun erabilgarri aztertzekotan geratzen gara.

2. HEZKUNTZA: Bi helburu nagusi:

- Eskolako parkea. Diru-laguntza batzuk medio, egokia litzatekeen zorua zein den ekainerako erabaki beharra dago. Bestalde zein parke jarri zehaztu aurretik hausnarketa orokorragoa egin nahi dute jolas garaia eta gune ezberdinak osotasunean hartuz. Eskola eta haurrak (batez ere txikiak) beraien behar eta nahiak zein diren aztertzen hasita daude; behin proposamen bat dutenean hirigintza lan taldearekin konpartitzea ondo legokeela iruditzen da.
- lazko urtarrilaren 14ean partaidetza handiko batzarra egin zen eta bertan ekarpen asko egin ziren aurrera begira jorratu beharreko gaien eta beharren inguruan. Berriz ere lan ildo horri eutsi eta ahalik eta eragile gehien partaidetzarekin zerrenda horretako proposamenak lehenetsi eta aurtengo eta hurrengo ikasturterako plangintza egitea pentsatzen da. Lehentasunezkoa jotzen da ahalik eta jende gehienak parte hartzea prozesu horretan. Ezinbestekoa da ahalik eta modu errazenean herritarrak informatzea erabaki ganorazkoak hartu ahal izateko. Horretarako proposamenak sailkatzeko moduren bat topatu behar da (auzolanean egingarriak, inbertsio handikoak, inbertsio txikikoak, ekipamenduak, nekez egingarriak..) eta informazioa ahalik eta jende gehienarengana iristea. Aldizkaria horretarako bide egokia ikusten da baina hurrengo alea apirilerarte aterako ez denez agian berandu da eta beste bideren bat bilatu beharko da. Diseinu erakargarri baten garrantzia



azpimarratzen da.

azpimarratzen da.		
ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Kultura batzordea, aurrekontua aztertu erabilgarri dagoen dirua zehazteko.	Hurrengo herri bizitzaren bilea.	Amaia eta kultura batzordea.
Tere, jubilatuen inguruko hausnarketa	Martxoak 9, hurrengo herri bizitza bilera	Jubilatuak eta Tere
Parkeko zorua erabakitzea	Ekaina	Haurren herria
Proposamenen zerrendatik aukeraketa prozesua aurrera eramatea	Ekaina	Haurren herria-herri bizitza
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera, Martxoaren 9an egingo dugu.		